


Hango eta hemengo bazterrak



Ahots eta giro anitz entzunarazi ditu liburu berean Xabier Montoia gasteiztarak

Amagoia Iban

13a adur txarreko zenbakia omen da jende askorentzat, eta 13 ipuin ditu Xabier Montoiaren liburuak. Ez dugu adur txarreko ariketatzat hartu *Baina bihotzak dio* honen irakurketa, haatik. Joxemari Iparragirreraren, Urretxuko bardoaren, kanta hitz batzuk dakartza gogora izenburutik beretik idazle gasteiztarak, eta hura bezala atzerrian ibili diren eta dabilzan hainbat euskal herritarren bizipenak aletu dizkigu. Madril, Londres, Napoli, Paris, Berlin, Mumbai (edo Bombay esatea hobe?), Txogori, Halifax, Irapuato, Buenos Aires, Daytona Beach, Douala eta Meotz dira erbeste gune horiek. Eta gune bakoitzak, pertsonaia bakoitzaren egoerak bezalaxe, ezaugarri propioak ditu erabat, behin-behineko eta behin betiko atzerriratzeen katalogo antzeko zerbait osatuz. Izan ere, atzerrira jotzeko arrazoi asko izan daitezke. Euskal Herrian ere bai. Ogibide bila, barne bakearen bila, jazarle politikorik gabeko tokiren baten bila, mendi gailur baten bila, maitearen bila, senideren baten bila... abiatuturiko pertsonaien bidaia fisikoei baino gehiago, bidaia horien arrazoiei erreparatu nahi izan die Montoiak, eta hamaika erre-gistro erabili ditu horretarako.

Nerabeekin hasita...

Gurasoak banandu ostean Madrilera bizitzera eraman duten mutil gaztea azaldu digu Montoiak, adibidez, *Madrid. Eguberrietako ipuina* lehen narrazioan. Eta helduen miseriez donostiar nerabe batek duen ikuspegi mindua alde batera utzi, eta Londresera eraman gaitu bigarren narrazioan. Montoiaren lanetan ageri ohi den umore beltz ia basatiaren lehen kolpeak jaso ditugu *London. Haur ipuinen artista* delakoan. *Au-pair* moduan lan egitera Londresko etxe ba-

Narrazioak: Baina bihotzak dio.

Xabier Montoia.

Elkar, 2002.

324 orrialde. 17,50 euro

tera joan den ezpeletar xaloaren pasadizoen kontakizunaren ironia ukituak izenburutik bertatik zirikatu gaitu. Napoliren txanda da jarraian. *Napoli. Egia horkanpoan dago*, keinu parapsikologiko eta guzti, bizkaitar lagun biren turista bidaia xumea da. *Paris. Oroimenaren ur handietan*, berriz, turismoarekin zerikusi gutxi duen egonaldi baten kontaketa dugu. Fleuryko espetxean gogoeta eginez dabilen preso politikoa emakumezkoa da protagonista, eta alaba eta bikotekidea ikusteko irrikaz bizi da.

Berlin. Maitasuna oporretan ipuinak ere, maitea gogoan duen gizonezko baten gogoetak azaltzen ditu. Paradoxen paradoxak zer diren, gizonezko protagonistaren alegiazko gogortasunaren atzean ezkututzen den ahuldadea ere ikusiko dugu. Barre algaraka aritu gara, egia esan, ipuin horretako zenbait pasarte irakurtzerakoan.

Indiara garamatza ondoren Montoiak, *Mumbai. Haizeak eronikoa* testuan. Anaiaren bila joandako emakume laudioarren kontakizunak bukaera tris-

Pertsonaien bidaia fisikoei baino gehiago, bidaia horien arrazoiei erreparatu die idazleak

teak ere ez direla hain tristeak erakusten digu. Eta *Txogori. Deus ez alpinista nafar batek* K-2ra eginiko espedizio baten egunkaria dugu. Halako bidaiei jantzi ohi diegun epikotasun atorrari adabaki bitxia erantsi dio Montoiak. Eta jarraian datorren *Halifax. Amaitezina dena* narrazioak, berriz, beste modu bateko epikotasuna kontatzen digu: Australiara ogi bila joandako emakume biren arteko maitasun harremana kontatzen digu, elkar ikusi ahal izateko, balentria kutsua duten hitzordu klandestinoak nola antolatu behar izaten dituzten azalduz.


Erbestea han eta hemen

Iheslari politikoen gaiari helzen dio jarraian Montoiak, *Irapuato. Makurkeria nonahi* ipuinean. Gizon makurrengandik beti ihesi dabilen familia baten berri ematen du bertan, famili horretako alaba kontalari bilakatuta. *Buenos Aires. Vita Horribilis*-en, berriz, inoiz ezagutu gabeko aitaren gutuna jasotzen duen emakumearen gogoeta kontatzen digu gasteiztarak. *Daytona Beach. Adio horri guztiari* AEBetako Jai-Alaietan zebiltzan euskal pilotariak duela bi hamarkada eginiko grebari buruz ari da. Eta Kamerunera itsasontzia hartzera doan marineleren egonaldia agertzen du *Douala. Krokodiloaren ezkatat* lanean.

Liburuari amaiera emanez, Nafarroako herri txiki batera bere burua erbusteratu duen pentsalariaren ingurukoa da *Meotz. Erbesterik latzena*. Lau lagunek agertzen digute erbeste horren aurpegi zenbait. Montoiak aipatzen duen erbesterik latzena, esan gabe doa, norbere herrian bilatu beharrekoa da.

Pertsonaia bakoitzaren jatorriari dagokion euskalkia erabiltzen eta kontakizun bakoitzari plano eta giro propioa ematen saiatu da Montoia *Baina bihotzak dio* honetan. Lehendik erakutsia zigan gordintasunetik goxotasunera jauzi egiteko gaitasuna, eta gaitasun hori galdu gabe jarraitzen du, zalantzarik gabe. Zenbait ipuin bereziki biribilak iruditu zaizkigu (K-2koa, Meatzekoa...). Beste zenbaitek, hotz utzi gaituzte (Napolioak, adibidez). Eta liburua bukatzean, gehiagoren gogoz geratu gara. Airean joan zaizkigu orrialdeak. Irakurtzea merezi duen lan berri bat eman digu la Montoiak, alegia.

Xoan Coutok Jose Ignacio Garciarekin osatu du irakurtzekoa eta ikustekoa den liburu hau



Haur literatura: **Hamalau, jostun kementsua. Xoan Couto.** Irudiak: Jose Ignacio Garcia. Itzulpena: Koldo Izagirre. Kalandraka, 2001. 39 orrialde. 10 euro.

Grimm anaien testuan oinarriturik idatzi du Xoan Couto galiziarrek *Hamalau, jostun kementsua* hau, eta testuak berak bezainbeste garrantzi hartzen duen irudien ederrarekin jantzi du. Izan ere, jostun kementsuaren ipuin klasikoaren bertsio honetarako jostun moduan aritu da Jose Ignacio Garcia, hariz, adabakiz eta irudimen harrigarritz *collage*-ak eginez.


Garzia, Egaña eta Sarasua, bertsolaritzaren gakoak eta azterbideak proposatuz



Bertsolaritza: **Bat-bateko bertsolaritza, gakoak eta azter bideak.** Andoni Egaña, Joxerra Garzia eta Jon Sarasua. Bertsozale Elkartea, 2002. 231 orrialde. 16,53 euro

Helburu pedagogiko argia dauka liburu honek eta, bertsolaritzaz ezer ez dakitenak gogoan, gaztelaniaz egin dute jatorrizko idazketa Garziak, Egañak eta Sarasuak. Euskarara, frantsesera eta ingelesera itzulita ere plazaratu dute, bertan proposatzen diren azterketa soziolinguistikoa, bat-batekoaren gakoak eta marko teoriko berria ahalik eta gehien zabaltze aldera.

Arteari buruzko Platonen ideiak itzuli dituzte Javier Alonsok, Jon Etxaidek eta Hannot Rodriguezek



Saiakera: **Ion. Platon.** Itzulpena: Javier alonso, Jon Etxaide eta Hannot Rodriguez. Jakin, 2001. 97 orrialde. 7,21 euro

Elkarrizketa hau ez da Platonen lanik ezagunena, baina garrantzi handia du, Platonek arteari buruz zituen ideiak azaltzeaz gain, mendebaldeko hermeneutikaren oinarriak finkatzen baititu. Mendebaldeko kultura madarikatu zuen elkarrizketa honek, filosofia eta olerkigintza betiko bereiziz. Orduz geroztik, sentimenduen mundua eta arrazoimena elkarrekiko arrotzak izango dira, filosofo olerkariaren figura kolokan jarrit. Jose Ramon Aranak idatzi du liburuko hitzaurrea.